



Lehenik eta behin, ohi bezala, etxean landutakoa aztertuko dugu:

- «Zer marraztu duzue 22. orrialdean?».
 - Irakur dezatela 23. orrialdean zer idatzi duten.
 - Ondoren, 24. eta 25. orrialdeak ikusiko ditugu.
 - Denok elkarrekin, 26. orrialdean idatzitakoa irakurriko dugu.
 - «Zer argazki itsatsi duzue 28. orrialdean?».
- Konta dezatela ospakizun horretatik gogoratzen dutena edo kontatu dietena.

Eguneroko bizitzan, hainbat gauza egiten ditugu, beste pertsonen hurbiltasuna adierazteko: agurtu, besarkatu, musu eman, gaixo daudenei ikustaldia egin, aitona-amonak bisitatu, lagundu, partekatu...

Sakramentuen irudiak margotzen doazen bitartean –gero horma-irudi bat egiteko eta irudi bakoitzaren azpian dagokion sakramentua ipintzeko–, sakramentuei buruz hitz egiten joan gaitezke. Irakurri egingo ditugu, eta zalantzarik baduten ikusi.

Sakramentuak Jesusengana hurbiltzeko ematen ditugun pausoak edo egiten ditugun keinuak dira.

Sakramentuak zazpi dira:

1.- Bataioa. Jaiotzen garenean, familia bateko kide bihurtzen gara, eta, bataioaren bidez, Elizako kide bihurtzen gara. Bataioan ura eta kandelak erabiltzen dira. Urak garbitasuna adierazten du, eta aita-ama pontekoei ematen zaien kandelaren argiak Jesus berpiztua adierazten du, Berak argitzen baitu gure bizitza. Haur bataiatuaren gurasoek eta aita-ama pontekoek haurra Ebanjelioaren balioetan hezteko konpromisoa hartzen dute; hau da, erakutsiko diote laguntzen, partekatzen, harrera egiten, otoitz egiten... Bataioa behin bakarrik jasotzen da.

2.- Adiskidetzea edo barkamena. Batzuetan, oker jarduten dugunean, urrundu egiten gara Jainkoarengandik, eta barkamena Eskatu behar aten dugu. Apaizak Jainkoaren izenean arkatzen dizkigu bekatuak. Baina guk ere jakin behar dugu besteei barkatzen.

Sakramentu hau hainbat aldiz jaso daiteke.



3.- Eukaristia. Aldarearen inguruan, ogia banatzeko eta Jaunaren hitza entzuteko elkartzen gara. Jesusek bere dizipuluekin izandako azken afaria gogoratzen dugu. Ogia eta ardoa erabiltzen ditugu horretarako. Baina gogoan izan Jesusek esandakoa: «Nire izenean elkartzen zareten bakoitzean, egizue hau eta Ni zuekin egongo naiz». Sakramentu hau askotan jaso dezakegu.

4.- Sendotza. Bataiatuta dagoen eta Lehenengo Jaunartzea jaso duen pertsonak Jesusen jarraitzailea izatea erabakitzen du Sendotzaren bidez. Berak hartzen du erabakia. Izan ere, bataiatzea eta Lehenengo Jaunartzea hartzea bere gurasoek erabaki zuten. Bataioko aginduak onesten ditu, bere garaian bere gurasoek eta aita-ama pontekoek bere izenean onetsi zituzten bezala. Gotzainak erritua esku-ipintzearen bitartez, eta Eliza Katolikoan, igurtziaren bitartez egiten du olio edo krisma ezartzen.

Sendotza behin jasotzen da.

5.- Ezkontza. Elkar maite duten bi pertsonak familia bat sortu nahi dutenean, apaizak, Jainkoaren izenean, bedeinkatu egiten du maitasun hori. Sinbolo gisa, eraztunak erabiltzen dira ezkontzean. Eraztun horiek ezkontideen konpromisoa adierazten dute, elkar errespetatzeko, maitatzeko, elkarri laguntzeko...

Behin baino gehiagotan jaso daiteke ezkontzaren sakramentua, (ADI) baldin eta ezkontideetako bat hil egiten bada.

6.- Apaizgintza edo Apaizgoa. Beren bizia besteen zerbitzura jarri nahi duten gizonak dira apaizak. Gotzainak bedeinkazioa ematen die, aurrerantzean laguntzeko, erkidegoa animatzeko, meza emateko...



Sakramentu hau behin jasotzen da.


7.- Gaixoen oliadura (Elizakoa edo biatikoa). Apaizak gaixoaldia hobeto eramaten laguntzen die gaixoei, edo heriotzarako prestatzen.


Behin baino gehiagotan jaso daiteke sakramentu hau.

Sakramentuen hitz-gurutatua egingo dugu.

Ondoren, denon artean Gure Aita erreztatuz bukatuko dugu.











HORIZONTALAK

- 1.- Gizonezko batek eta emakumezko batek elkar maitatzeko promesa egiten dute Elizan. Nola deitzen da sakramentu hori?
- 4.- Kristau familiaren kide egiten gaituen sakramentua. Nola deitzen da?
- 8.- Kristau bezala jokatzeko jarraituko duela agintzen du gazte batek Sakramentu horren izena.
- 10.- Bataioaren ezaugarrietako bat, hain zuzen, gurasoei ematen zaien zuziak adierazten du.
- 11.- Sendotzaren ezaugarrietakoa den Olio perfumatua eta bedeinkatua. Nola deitzen da?
- 12.- Nola deitzen da apaizak mezaren barruan konsagratutako ogia

BERTIKALAK

1. Apaizak bekatuak barkatzen ditu Jainkoaren izenean. Nola deitzen da sakramentu hori?
- 3.- Norbait apaiz egiten duen sakramentua
- 5.- Jesus gure fede bizitzaren janari bezala ematen digun sakramentua.
- 6.- Pertsona zaharrei ego gaixoei ematen zaien sakramentuaren izena.
- 7.- Apaizari damaturik norbere bekatuak esatea. Nola deitzen da ekintza hori?
- 9.- Bataioko unean apaizak zerbait garrantzitsua botatzen dio buru gainean bataiatuari. Zer da?



A crossword puzzle grid with 12 numbered starting points for words. The grid is composed of empty squares for letters. The numbers are placed at the beginning of the words:

- 1: 8 squares, horizontal
- 2: 10 squares, vertical
- 3: 6 squares, vertical
- 4: 4 squares, vertical
- 5: 8 squares, horizontal
- 6: 5 squares, vertical
- 7: 6 squares, horizontal
- 8: 8 squares, horizontal
- 9: 5 squares, vertical
- 10: 7 squares, horizontal
- 11: 8 squares, horizontal
- 12: 4 squares, horizontal



2

3 A P A I Z A G O A

B

7

1

8 S E N D O T Z A

E

O

I

Z

5

6 B I A T I K O A

9 U R A

O

11 K R I S M A

R

O

E

N

A

I

10 A R G I A

S

4 B A T A I O A

I

12 O G I A